nagusilan

ADIN NAGUSIKOEN GIZA BOLUNTARIOTZA
VOLUNTARIADO SOCIAL DE MAYORES

## Jarduera memoria 2024

# Boluntariotza Elkartea

## 1995etik

Irabazi-asmorik gabekoa, apolitikoa, akonfesionala eta demokratikoa.

Adineko pertsonen laguntzan erreferentea.

Adineko pertsonen ahotsa.






# Helburuak

1. Adineko pertsonen nahi gabeko bakardade emozionala eta soziala arintzea.
2. Zahartze aktibo solidarioa eta boluntariotza sustatzea.
3. Adineko pertsonen eskubideen defentsa.
4. Gizarte arloko erakunde solidarioekin lankidetzan aritzea.

# Ekintza-ildoak

## Nola lortzen ditugu helburuak?

- Egoitza eta eguneko zentroetako laguntza
    - Aisitaldiak eta paseoak
    - Animazio jarduerak
- Etxeko laguntza
    - Presentziala: etxeetan
    - Telefonikoa: Zilarrezko Hari programa
- Belaunaldien arteko proiektuak
- Beste erakundeekin lankidetza
- Parte-hartzea eta gobernantza



# 2024ko datuak

**852 pertsona boluntario** 589 emakume (%69) 263 gizon (%31)

**109 alta y 79 baja 2024an** 30 pertsona gehiago

**NAGUSILANen 31 herri-delegazio** 4 Araba, 3 Bizkaia, 24 Gipuzkoa

**6.500 adineko pertsona baino gehiago babestu ditugu** egoitza, eguneko zentro eta etxebizitzetan, bai presentzialki, baita telefonoz bitartez.

**145.610**
**BOLUNTARIOTZA ORDU**

**170 ordu urtean**
**PERTSONA BOLUNTARIO BAKOITZAK**

# Inpaktu ekonomikoa

**145.610 ordu x 15 €/ordua = 2.184.150€** - 337.379€ (urteko gastua)

**1.846.771€-ko**
**diru-ekarpena**

Nagusilaneko boluntario bakoitzak 2.175 euroko ekarpena egiten dio gizarteari.

# Zilarrezko haria

Bakardadean dauden adinekoentzat doako laguntza-zerbitzu telefonikoa, deiak artatzeko bereziki prestatutako Nagusilaneko boluntarioen bidez eskaintzen dena.

HILO DE PLATA
900 713 771

98 pertsona boluntario (+29) Emakumeak 77 (%78) Gizonak 21 (%22)

158 pertsona artatuak (-11) Emakumeak 126 (%80) Gizonak 32 (%20)

Buruturiko telefono deiak
12.573

Boluntariotza ordu
4.435



# Animazioa

Boluntariotzak adineko pertsonei zuzendutako animazio- eta entretenimendu-jarduera ugari garatzen ditu, batez ere egoitzekin eta eguneko zentroekin lankidetzan. Horien artean nabarmentzekoak dira musika-emanaldiak (gitarra, harmonika, trikitixa, txistua, abesbatza, karaoke...) eta antzerki-emanaldiak. Era berean, jarduera horien kudeaketa eta koordinaziorako plataforma pilotu berritzaile bat jarri da martxan.

**19 animazio talde**

**378 ekitaldi**

## Emanaldien kudeaketarako plataforma bat garatzeko proiektu pilotua.



# Belaunaldien arteko proiektuak

## Gipuzkoa

**Tolosa Delegazioa**
Hirukide ikastetxearen lur-sail bat baliatuz, Nagusilaneko boluntarioek Uzturre egoitzako pertsonak laguntzen dituzte baratzearen zaintzan, Hirukideko ikasleekin batera.

**Deba Delegazioa**
Udalerriko Eguneko Zentroarekin eta Luzaro ikastetxearekin lankidetza, hiru taldeen arteko jarduerak egiteko eguneko zentroan bertan.

## Bizkaia

**Berriztu**
Gazteekin kafe-solasaldiak (neurri judizialak dituzten gazteekin).
Helburu nagusiak hauek dira: gazteen autoestimua indartzea, adinari lotutako estereotipoak lantzea eta adin desberdinetako pertsonen arteko harremanak eta loturak sortzea. Lankidetza zabaldu da, Bilboko egoitzetan paseoak eta psikomotrizitate-saioak eginez.
Proiektua fase pilotutik proiektu sendotu eta egonkorrera igaro da. Gainera, esperientzia Donostiako delegaziora transferitu da, han ere proiektu pilotu gisa abian jar dadin.

## Araba

**Gasteizko Delegazioa**
Bi prestakuntza-hitzaldi eman dira UPV/EHUko Gasteizko Gizarte Laneko Fakultatean, lehen mailako ikasleei zuzenduta. Lankidetza horri esker, zazpi boluntarioz osatutako talde batek eskulan-tailer bat jarri du martxan egoitza batean. Gainera, Zabalgana BHIko Batxilergoko 1. mailako ikasleekin eta Agure egoitzarekin batera, belaunaldien arteko sukaldaritza-tailer batean parte hartu da.

## Gabonetako postalak

Pasaian Hiru ikastetxeek elkarlanean aritu dira 120 postal baino gehiago idazteko, eta ondoren San Pedro egoitzara eramateko. Gasteizen Save The Children erakundearekin, Niño Jesús ikastetxearekin eta Hogar San José ikastetxearekin lankidetzan, gutxi gorabehera 350 postal idatzi eta banatu dira.

**Guztira, 1.700 postal baino gehiago idatzi dira eskuz Nagusilan osoan.**

## Ikastetxeetako jarduera ezberdinak

Bergara, Deba, Donostia, Hondarribia, Irun eta Legazpi.

# Beste erakundeekin lankidetza

## Matia Fundazioa

Nagusilaneko boluntariotzaren lankidetza hainbat jardueratan, honako udalerrietako egoitzetan eta eguneko zentroetan: Donostia, Zumaia, Zumarraga, Oiartzun, Azpeitia eta Usurbil.

## Goyeneche Fundazioa

Nagusilaneko boluntariotzak Garagune izeneko guneetan (9) lankidetzan jardun du, adimen-desgaitasuna duten pertsonek gure komunitatean aukera aberats eta betegarriak izan ditzaten sustatzen lagunduz (Ibarra, Pasaia, Zarautz, Donostia, Legazpi, Irun eta Errenteria).

Halaber, Legazpiko Garaguneko erabiltzaileekin online literatura-jarduerak egiten jarraitu da.

## Elikagaien bankua

Nagusilaneko boluntariotzak Elikagaien Bankuaren jardueretan parte hartu du —elikagaien bilketa handietan, banaketan eta antolaketan— honako udalerrietan: Zumaia, Hondarribia, Amurrio, Legazpi, Beasain eta Zumarraga.

## Talur

Talur aisialdi-elkartearekin lankidetzan, pintura-tailerrak egin dira desgaitasuna duten pertsonekin eta Gasteizko Lakuako egoitzako adinekoekin.



# Beste erakundeekin lankidetza

## Nagusikletak

Balazta elkartearekin batera garatutako Nagusikletak proiektua. Hondarribiko delegazioari Iruñeko delegazioa ere batu zaio, Nagusikleta berri batekin.

## ADEMGI, Esklerosi anikoitza Gipuzkoa

Busti zaitez esklerosiaren aurka Zumaian.

## Paseo osasuntsuak

Amurrio, Hondarribia, Irun, Lasarte-Oria, Legazpi, Tolosa eta Zumaia.

## Sareak eta boluntariotza entitateak

Nagusilanek modu aktiboan parte hartu du honako sare hauetan: Sareginez (Gipuzkoa), Bizkaia Gara (Bizkaia) eta Batekin (Araba).
Sare horiek osatzen dituzten gainerako elkarteekin batera, ezagutza partekatua sustatu da, jarduera bateratuak artikulatu eta garatu dira, eta hausnarketa eta prestakuntza prozesuak landu dira.

## Uliazpi

Uliazpirekin lankidetza —adimen-desgaitasuna duten pertsonei laguntzak eta zerbitzuak eskaintzen dizkien erakunde autonomoarekin—; sei boluntariok parte hartu dute Hondarribiko delegazioan.



# Ikasten. Formakuntza

## Hasierako ikastaroa: "Ezagutu Nagusilan"

- 9 aurrez aurre: Bilbao, Donostia eta Vitoria-Gasteiz.
- 9 on-line

## "Zilarrezko Haria" hasiera ikastaroa

- 9 on-line

## La Caixa-rekin kolaborazioa

Amurrioko Delegazioa: 8 lagunek parte hartu dute, eta 15 ordu baino gehiagoko prestakuntza jaso dute gaitasun digitaletan.

## Prestakuntza-ikastaro presentzialak honako delegazioetan:

Donostia, Legazpi, Hondarribia, Amurrio eta Lasarte-Oria.

- Lasarte-Oria: “Nik balio dudalako. Autoestimua eta aitortza” eta “Jendea gustura nola izan (denentzat?)”, Karmele Gurrutxagarekin.
- Lasarte-Oria: “Narriadura kognitiboa prebenitzea. Musikaren zeregina”, Jose Felix Martí Massorekin.
- Hondarribia: “Ongizatea lortzeko ohiturak”, Albertina Fernándezekin.
- Legazpi: “Musikoterapia”, Elisabet Gordoa-rekin.

## MATIA Fundazioa

“Etxean bezala” ikastaroan parte hartzea eta gida lantzea. Oiartzungo Delegazioa.






# Bestelako ekimenak

## “Zilarrezko Haria” dei solidarioen maratoia



- Goizeko 9:00etatik gaueko 21:00etara deiak: 12 ordu
- Egindako deien kopurua: 388
- Izandako elkarrizketen kopurua: 326
- Elkarrizketen denbora osoa: 24 ordu eta 27 minutu
- Jardunaldian parte hartu duten pertsonak: 400 baino gehiago

Bideoa Ikusi: https://youtu.be/jDHLB3F1Krg

## Bakardadeari buruzko jardunaldiak landa-eremuan



- 72 pertsonak parte hartu zuten, tartean Nagusilaneko boluntarioak eta elkarteetako zein erakunde publikoetako teknikariak.
- Jardunaldia Sara Marsillasen hitzaldiarekin hasi zen. Ondoren, landa-eremuetako hainbat gunetan garatzen ari diren lau proiekturen aurkezpena egin zen, eta saioa amaitzeko, tailer parte-hartzaile bat egin zen; bertan, proiektu berrietarako proposamenak sortu ziren.

Bideoa ikusi https://www.youtube.com/watch?v=36ZCJZ6S1Lk

## Bakardadeari buruzko III Kontakizun laburren lehiaketa

- 60 urtetik gorako EAEko pertsonei eta Nagusilaneko boluntarioei zuzendutako ipuin laburren lehiaketa.
- Irabazleen eta finalisten kontakizunak biltzen dituen liburu bilduma argitaratu da.




Bideoa ikusi: https://www.youtube.com/watch?v=36ZCJZ6S1Lk

# Bestelako ekimenak

## GOLF Txapelketa

- Real Club de Golf de San Sebastián.
- XIX. edizioa, parte-hartze zabala izan duena.




## Gabonetako zozketa

- Errifa salmenta.
- 800 euroko balioa duen Gabonetako saski handi baten zozketa.

## Klink bazkari solidarioa

- Hondarribiko KLINK elkartearekin hitzarmena janari solidarioa antolatzeko.

# Parte-hartzea eta Gobernantza

## Bi Batzar Nagusi egin dira.

Donostian (Gipuzkoa) eta Bilbon (Bizkaia) ospatu dira.



# Parte-hartzea eta Gobernantza

**Zuzendaritza Batzordea**
**(11 bilera)**

Organo zuzendaritzailea izan da, jarduera-ildo nagusiak eta erabaki estrategikoak bertatik bideratzen jarraitu direlarik.

**Zentroen artekoa**
**(6 bilera)**

Tokiko delegazioetako arduradunen eta Zuzendaritza Batzordearen artean informazioa eta iritziak trukatzeko bilkurak egin dira. Bilera guztiak modu mistoan (presentzialki eta telematikoki) gauzatu dira.

## Foru eta Udal Kontseiluak: adinekoen kontseiluak eta gizarte-kontseiluak

- Euskadiko Adinekoen Batzordea (EAB).
- Agenda Nagusia.
- Consejo de Voluntariado de Euskadi.
- Euskadi Lagunkoia Berria (Amurrio, Beasain, Donostia, Elgoibar eta Legazpi).

## Nagusilan Elkarteen Espainiako Federazioaren bidez.

- Consejo Estatal de Personas Mayores
- CEOMA: Junta Directiva y Comisión de Voluntariado, Pensiones y relaciones internacionales.
- 65ymás Consejo Editor
- Red de Soledades



# Sariak eta aitortzak

## “Gure Balioak” - Debegesa

## "XII Premio Labor Social 2024" - Onda Cero

## "Premio al mejor programa o experiencia de voluntariado" - LARES 2024




# Barne-komunikazioa

## Nagusilan Notiziak. WhatsApp kanala

Helburua: Nagusilanekin lotura estua duten pertsona boluntario aktiboek, ez-aktiboek, Lagunek eta lankidetzan aritzen garen elkarteek nahiz espazioek Nagusilani buruzko azken berrien eta jardueren berri izatea.
Aurten ere boluntariotza-behar zehatzak bidaltzen jarraitu dugu, eta egiaztatu dugu metodo hori oso eraginkorra dela.






# Komunikabideak

## “Zilarrezko Haria” dei solidarioen maratoia izan da urteko ekitaldi nabarmenena hedapenari dagokionez.

¡Eskerrik asko posible egin duzuen boluntario guztioi!

# Maratoia zifretan

- Publizitatea Donostia–San Sebastiángo autobusetan eta 74 markesinatan.
- Irrati-iragarkia Onda Ceron eta saioaren zuzeneko emanaldia.
- Publizitatea sare sozialetan (Facebook eta Instagram), 85.000 pertsona baino gehiagorengan eragin zuzena izanda.
- 85 inpaktu komunikabideetan: Diario Vasco, Noticias de Gipuzkoa, La Ser, Euskadi Irratia, Radio Euskadi, Onda Vasca, Cope, 65ymás, etab.
- Pertsonaia publikoen babes-bideo 20 lortu dira ekitaldiaren alde.
- Prentsaurrekoa Donostiako Udalean.
- Real Sociedad Fundazioaren babesa.


EL DIARIO VASCO

«Hablar por teléfono con otras personas que están solas me ha ayudado mucho»



# Datu ekonomikoak 2024

| 2024ko EMAITZA EKONOMIKOA | | | |
|---|---|---|---|
| **SARRERAK 2024** | | **IRTEERAK 2024** | |
| Eusko Jaurlaritza | 62.419€ | Soldatak eta lansariak | 147.935€ |
| Foru Aldundiak | 102.676€ | Gizarte Segurantza | 52.085€ |
| Udalak | 67.198€ | Bestelako gizarte-gastuak | 1.194€ |
| Dohaintzak | 50.848€ | Konponketak eta mantentze-lanak | 2.940€ |
| Fundazioak eta gizarte-ekintzak | 20.900€ | Profesional independenteen zerbitzuak | 71.093€ |
| Jarduera propioak eta bestelako diru-sarrerak | 15.774€ | Garraioak | 471€ |
| | | Seguruak | 5.035€ |
| | | Banketxeetako zerbitzuak | 446€ |
| | | Publizitatea | 3.952€ |
| | | Hornidurak | 2.700€ |
| | | Bestelako zerbitzuak | 45.863€ |
| | | Amortizazioak | 867€ |
| | | Itzulketak | 1.551€ |
| | | Finantza-gastuak | 1.247€ |
| **GUZTIRA** | **319.815€** | **GUZTIRA** | **337.379€** |
| | | **2024ko EMAITZA: GASTUAK / SARRERAK** | **-17.564€** |

nagusilan
ADIN NAGUSIKOEN GIZA BOLUNTARIOTZA
VOLUNTARIADO SOCIAL DE MAYORES

## Jarduera memoria 2024

# Boluntariotza elkartea

## 1995etik


**GIPUZKOA (bulego nagusia)**
Resurrección María Azkue, 32 bajo
20018 Donostia-San Sebastián
info@nagusilan.org
Tel. 943 47 50 21

**ARABA**
Cubo, 1 bajo dcha.
01001 Vitoria-Gasteiz
araba@nagusilan.org
Tel. 747 43 52 62

**BIZKAIA**
Alameda de Mazarredo, 25, 1°
48009 Bilbao
bizkaia@nagusilan.org
688 73 95 23

www.nagusilan.org